

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

**SALUD**DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 192.000 euroko diru-laguntza onartu da NUPko 50 graduatuk enpresa europarretan praktikak egin ditzaten

*Leonardo programak finantzatu du Unibertsitate Publikoko Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren, Gobernuaren eta Nafarroako Ganberaren ekimen hau*

Jueves, 23 de junio de 2011

Europako Programen Erakunde Autonomoak 192.762 euroko diru-laguntza onartu du Leonardo programaren bidez nazioartean praktikak egiteko proiektua finantzatzeko. Proiektu hori Unibertsitate Publikoko Unibertsitate-Gizarte Fundazioak aurkeztu du, Nafarroako Gobernuaren (Nazioarteko Garapenerako Zuzendaritza Orokorraren bidez) eta Nafarroako Ganberaren laguntzarekin.

"European Mobility Programme for University Graduates" izeneko proiektu hau uztailean egikaritze eta abiatze fasean sar dadila aurreikusita dago; hala, egonaldiei irailatik aurrera hasiera eman ahal izango zaie. Proiektua Unibertsitate-Gizarte Fundazioak kudeatu eta koordinatu du, eta Nafarroako Ganberaren laguntza izango du graduatuek praktikak egin ahal izateko enpresak identifikatzeko lan horretan; proiektuari laguntza instituzionala ematen, berriz, Nafarroako Gobernuak parte hartuko du.

### Mugikortasuna sustatu

Ekimen honekin, unibertsitate-titulua duten pertsonak Europar Batasuneko beste estatu batzuetara mugitzeko aukera sustatzen lagundu nahi da lan-praktikak eginez; eta horien bidez, maila teknikoan, eskumen-mailan, kultur nahiz hizkuntz mailan beren ezagutzak zabal ditzatela. Proiektuaren barnean 30 enpresa baino gehiago dago jada, eta praktika-aldiak egiteko tituludun nafarrak hartzeko konpromisoa hartu dute.

Guztira, 50 ikaslek 24 asteko egonaldiak egingo dituzte 18 hilabeteko iraupena duen "European Mobility Programme for University Graduates" ekimenaren barnean. Honako leku hauetan izango dira: Alemania, Austria, Belgika, Frantzia, Holanda, Hungaria, Irlanda, Italia, Polonia, Portugal, Erresuma Batua eta Txekiar Errepublika. Egonaldi horietan bi fase bereiziko dira: lehenengoa 8 astekoa izango da, parte hartzen duen pertsonak kultur eta hizkuntz baldintzerara molda dadin, eta enpresak lanposturako behar duen prestakuntza eman diezaion; 16 astetako bigarren fase batean, parte-hartzaileak bere trebetasunak erakutsi eta eskumen berriak izango ditu. Edukiak praktikak hasi aurretik erabakiko dira, prestakuntza-sektorearen eta parte-hartzaileen behar pertsonal eta profesionalen arabera.

Europako enpresa horien egonaldietan parte hartu ahal izango dute:

diplomatura, lizentziaturarekin lizentziatutako guztiek edo titulazio ofizial guztien Graduak titulu ofizialak dituztenek eta aurrez Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren Enplegu eta Praktiken poltsan izena eman dutenek.

Gogora ekarri behar da, NUPko 2010-2011 ikasturtean 9.000 ikasle baino gehiago matrikulatu dela, eta kopuru horretatik 1.300 inguruk beren ikasketak orain bukatzen den ikasturtean amaituko dituztela. Erreferentzia moduan, azken 4 urteotan Fundazioaren datu-basean 4.300 lizentziatutik gora erregistratu dira; haiei, gainera, prestakuntza eta enpleguaren inguruko aukera guztien berri ematen zaie, nazioarteko praktika-programa barne; programa horretaz urtero 45 pertsona inguru baliatzen dira.